



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA



www.hegoa.ehu.es

Bilbao

Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

Vitoria-Gasteiz

Arabako Campus-eko Liburutegia. UPV/EHU
138 kutxatila - Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Faxa: 945 01 42 87
hegoagasteiz@ehu.es

Donostia-San Sebastián

Villa Soroa. UPV/EHU
Ategorrieta, 22
20013 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Garapenerako jarduerak: prestakuntza, sentsibilizazioa eta hezkuntza	6
Ikerketa-jarduerak	11
Argitalpenak	15
Irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak	19
Aholkularitza eta gaikuntza teknikoko jarduerak	21
Sare eta foroetan parte hartzea	25
Erakunde-organigrama	26
Txosten ekonomikoa	27





Aurkezpena

Memoria honetan Hegoa Institutuak 2009. urtean egin dituen jarduerak bildu ditugu. Horien artean, hiru nabarmendu nahi izan ditugu bereziki.


Lehendabizi, *2010-2014 Plan Estrategikoa*, Institutua osatzen dugun guztion artean aurrera eramaten ari garena, bai EHUko irakasle eta ikerlariok (PDI) bai lan-sarripeko langileok. Proposamen horren bidez, datozen urteetan gure jardunaren ildo nagusiak izango direnak zehaztu nahi ditugu, hain zuzen ere ikerketaren, prestakuntzaren, sentsibilizazioaren eta garapenerako aholkularitzaren esparruan egiten ari garen lanari koherentzia ematen jarraitzeko, esparru horietan lanean dihardugun eragileok aro garrantzitsua bizitzen ari baikara.

Bigarrenik, bereziki garrantzitsua irizten diogu Kalitatea eta Egiaztapena Ebaluatzeko Nazio Agentziak (ANECA), *Garapenerako ikasketak* izeneko Doktorego Programa Ofiziala onesteari. Hirugarren zikloan ematen den programa horren baitan ikasgai hauek ematen dira EHUko hainbat sailarekin lankidetzan: Ekonomia Aplikatua I, Ekonomia Aplikatua IV, Soziologia, Soziologia 2 eta Enpresaren Zuzenbidea. Proposamenaren egile den Hegoa Institutuak ere programa horretan parte hartzen du. Doktorego Programan, EHUko irakasleak ez ezik, beste unibertsitateetako ikerlariak ere hartzen dute parte. Programak hainbat ikerketaildo eskaintzen du, hiru esparru nagusitan banaturik: *Garapenerako lankidetzeta eta laguntza: giza garapeneraren eta sentsibilizazioaren dimentsioak; eta Globalizazioa eta nazioarteko harreman ekonomikoak*. Programa horri esker, doktorego-tesiak egin ahal izango

dira, eta tesi horiek garapenerako lankidetzan lan egiten duten erakundeek gaitasunak sendotzea ekarriko dute, bai eta Hegoa Institutuaren ikerketa-jarduera hedatzea ere.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu urte honetan zehar Hegoa Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzeta Zuzendaritzaren artean izenpetutako hitzarmenaren lehenengo zatia betetzen joan garela. Aipatutako hitzarmena lankidetzarako Euskal Estrategiaren baitan sinatu genuen, Guatemalari garapenerako laguntza tekniko eskaintzeko asmoz. Tarte horretan, hiru mahaietako (*Herri Indigenen eta Nekazarien Mahaia, Tokiko Boterearen Mahaia, eta Mahai Feminista*) estrategiak, jarduerak eta proposamenak bultzatzeko eta sendotzeko ekimenak burutu dira. Mahaiok Garapenerako Gobernu Kanpoko Euskal Erakundeek (GGKE) Guatemalako hainbat lurraldetan lanean dituzten ordezkari guatemaldarrek osatzen dituzte.

Luis Guridi Aldanondo
Hegoa Institutuko zuzendaria





Garapenerako jarduerak: prestakuntza, sentsibilizazioa eta hezkuntza

Garapenaren arloan Hegoa Institutuak aurrera eramaten dituen prestakuntza, sentsibilizazio, eta hezkuntza jarduerak hiru modutara banatzen dira. Batetik, Goi Heziketako Europar Ikasketen (EEES) formatura egokitutako graduondo ofizialeko ikastaroak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eskainitako tituluak daude. Bestetik, Hegoa Institutuko kide garenon parte-hartzea Espainiako, Europako nahiz Latinoamerikako hainbat unibertsitateetan eskainitako graduondoko ikastaroetan (doktoregoak, masterrak, espezializazioa eta diplomak). Azkenik, jarduera horren osagarri modura, beste unibertsitateetatik, GGKEtatik eta bestelako erakundeetatik eskatzen dizkiguten ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak eta mintegiak daude.

Hegoa Institutuak eskainitako graduondoak

2008-2009 ikasturtean master ofizial hauen bigarren edizioa izan da: *Globalizazioa eta Garapena* eta *Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta*. 2009-2010 ikasturteari dagokionez, abian da bi master horien hirugarren edizioa, baita *Garapenari buruzko ikasketak* izeneko Doktorego Programa ere. Masterron edizio guztiek zati erkide bat dute, eta zati hori euskaraz ere ematen da. Kontuan izanik gure ikasleen jatorri anitza, zaila egiten zaigu euskara behar bezala menperatzen duten ikasleak batzea, baina, hala ere, guretzat erronka garrantzitsua da, eta, horregatik, gure asmoa hurrengo edizioetan euskararekin aurrera jarraitzea da.

■ Graduondo ofizialak

Masterra: Globalizazioa eta Garapena

Batik bat ikerketa-prestakuntzara bideratuta dago. Globalizazioaren eta garapen-prozesuen arteko harremanak aztertzen ditu giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik.

2007-08 ikasturtean 13 ikasle matrikulatu ziren (9 emakume eta 4 gizon), eta 2009an, horietatik bostek beren doktorego-tesia inskribatu dute *Garapenerako ikasketak* izeneko doktorego-programan.

2008-2009 ikasturtean, 21 ikasle matrikulatu ziren (11 emakume eta 10 gizon). Horietatik 11 Euskal Autonomia Erkidegokoak ziren, 2 beste autonomia-erkidegoetakoak, eta 5 Latinoamerikakoak. Bi ikaslek beren doktorego-tesia matrikulatzea lortu dute AECID bekari esker.

2009-2010 ikasturtean, berriz, master hau EHUn gehien eskatutako masterraren artean hirugarren lekuan geratu da, 94 aurre izen-ematerekin. Gaur egun, ikasleak 14 dira; 6 Euskal Autonomia Erkidegokoak, 5 beste autonomia-erkidegoetakoak, 2 Latinoamerikakoak eta 1 Amerikako Estatu Batuetakoa.

Masterra: Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta

Master honen helburu nagusia da ikasleei prestakuntza profesionala ematea garapenerako nazioarteko lankidetzan, betiere, honako hauek gogoan izanik: ekitatea, pobreziaren aurkako borroka, gizakiaren garapena, eta iraunkortasuna.

2008-2009 ikasturtean 91 eskabide aurkeztu ziren eta 27 ikasle matrikulatu ziren (19 emakume eta 8 gizon). Matrikulaturiko ikasleetatik 12 Euskal Autonomia Erkidegokoak ziren, 8 beste autonomia-erkidegoetakoak, 4 Latinoamerikakoak, 1 Afrikakoa, eta 2 Europako Batasunekoak.

Praktikaldia amaitu zenetik denbora gutxi joan den arren (2009ko abenduan), gaur egun 9 lagun ari dira

lan-kontratuarekin lanean lankidetzarekin loturiko esparruetan; bi lagun ART Programan ari dira lanean Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker, bata La Paz hiriburuan (Bolivia) eta bestea Quiton (Ekuador); eta Master hori egin zuten beste bi ikaslek *Garapenari buruzko ikasketak* doktorego-programan matrikulatu dute beren doktorego-tesia.

Azkenik, azpimarratzekoa da 2009-2010 ikasturtean master hori izan dela *Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaintzaren artean eskaera gehien jaso dituen* (224 eskaera). Orotara, 24 lagun matrikulatu dira: 8 Euskal Autonomia Erkidegokoak, 7 beste autonomia-erkidegoetakoak, 4 Latinoamerikakoak, 1 Afrikakoa, 2 Europako Batasunekoak, eta 1 Amerikako Estatu Batuetakoa.

Gure ustez, aski esanguratsua da master ofizial honetako lehenengo edizioan (2007-2008 ikasturtea) parte hartu zuten ikasleetatik gaur egun lanean ari direnen kopurua; izan ere, masterra amaitu zuten 28 ikasleetatik (20 emakume eta 8 gizon), 2009aren amaieran %92 zegoen lanean garapenerako lankidetzarekin loturiko esparruetan. Horietatik, 18 lan-kontratuarekin ari ziren; 4 Nazio Batuen Erakundeak sustaturiko programetan Eusko Jaurlaritzak emaniko bekari esker; eta beste 4 bestelako GGKEtan. Egiteko-ei dagokienez, 11 lagunek Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dute euren egitekoa, eta beste hiruk beste autonomia-erkidegoetan. Latinoamerikan 7 lagun ari dira lanean gaur egun, Afrikan 1, Palestinan 2, eta beste bat New Yorken (AEB), PNUD delakoan.

■ Titulu Propioak

On line masterra: Estrategiak, Eragileak eta Garapenerako Lankidetzaren Politikak

On line master honen xedea da etengabeko prestakuntza eta gaikuntza ematea garapenerako lankidetzaren esparruan lanean dihardutenei, dela garapenerako gobernu kanpoko erakundeetan (GGKE) lanean ari direnei dela gure lurraldean nahiz gure lurraldetik kanpo kokaturiko herri-erakundeetan eta administrazio zentraletan (toki-mailakoak zein

lurralde-mailakoak) lanean ari direnei. Aurtengoa masterraren zazpigarren edizioa da.

Masterrak 60 kreditu ditu; 51 zati teorikoari dagozkio eta gainerako 9ak memoria bat eginez lortuko dira. Ikastaroa 12 modulutan banatzen da eta 18 hilabete-ko iraupena du.

Ikasleen jatorriari erreparatuz gero, denetarik dugu. Bost ikasle Euskal Autonomia Erkidegokoak izan dira, hamazortzi beste autonomia-erkidegoetakoak, 6 Latinoamerikakoak, eta bat Afrikakoa.

■ Hegoa Institutuak eskaintako beste graduondo-ikastaroak

Ikastaroa: Garapenerako Lankidetzaren eta Giza Laguntzaren Aditua

Saharako herritar errefuxiatuen artean *Garapenerako Lankidetzaren eta Giza Laguntzaren Aditua* izeneko ikastaroaren lehenengo edizioa jarri dugu martxan 2008-2009 ikasturtean, hain zuzen ere, AECIDek finantzaturik. Ikastaro horretan 24 ikaslek hartu dute parte; 16 gizonezkoak eta 8 emakumezkoak, guztiak ere saharar oinarri-erakundeetako teknikariak.

Aditu-ikastaro honen bidez lortu nahi dena da nazioarteko lankidetzaren ardura duten saharar gobernuo ki-deei prestakuntza eta gaikuntza ematea garapenerako lankidetzaren arloan eta giza laguntzaren arloan. Gaur egun, saharar gobernuaren administrazioa Tindufeko errefuxiatu-eremuan kokatzen da, Aljerian.

Irakaskuntza-programa moduluka banatzen da. Hona hemen modulu bakoitzean irakasten dena: garapenerako kontzeptu-markoa, generoa eta garapenerako lankidetzaren administrazioa eta kontabilitatea, proiektuaren zikloaren kudeaketa, tokian tokiko garapen ekonomikoa, ura, ingurumena eta garapena, osasuna eta giza laguntzaren kudeaketa.

Urrian ekin zitzaion 2009-2010 ikasturtearen bigarren edizioari. Bigarren edizio horretan 24 ikaslek eman dute izena; 15 gizonezkoak eta 9 emakumek.

Diploma: Kudeaketa-Prestakuntza Industria Birmoldaketa-prozesuan Tokiko Giza Garapenaren Testuinguruan

Lau edizioen ondoren (2005az geroztik), ikasturte honetakoa Kubako Holguin Unibertsitatearekin elkarlanean ematen genuen tokiko garapen ekonomikoari buruzko diplomaren azken edizioa izan da. Edizio guztiek Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzaren Zuzendaritzaren finantziarioa izan dute, eta, besteak beste, honako erakunde hauek aritu gara elkarlanean: Hegoa Instituta, Holguineko Unibertsitatea, Arrasateko Mundukide Fundazioa, eta Universitas-PDHL-MINAZ.

■ Hegoa institutuak eskaintako bestelako irakaskuntza-saioak

IKASTAROA: GARAPENERAKO ETA HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA. Mundubildu proiektuaren baitan –Eusko Jaurlaritzak eta AECID erakundeak finantzatua-, Garapenerako eta Hiritartasun Globalerako Hezkuntza izenburuko on-line ikastaroa jarri da abian. Hainbat hezkuntza-eragileri irakasle, hezitzaile, unibertsitateko irakasle eta GGKE zuzendutako prestakuntza jardura da.

IKASTAROA: GENEROA GARAPENERAKO HEZKUNTZAN. Kultur aniztasuna, herri indigenak, elikagai-subiranotasuna eta bakerako hezkuntza. Prestakuntza-jardura hori honako izenburua duen proiektuaren bigarren fasearen baitan kokatzen da: *Generoa garapenerako hezkuntza: Iparralde Hegoalde eztabaidagaia emakumeen agenda politikorako.* Aipatutako proiektua ACSUR-Las Segovias izeneko erakundearekin elkarlanean garatu da, eta Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzaren Zuzendaritzaren eta Espainiako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Agentziaren finantziarioa jaso du.

MINTEGIA: ELKARTE EKONOMIKOEI (EPA) BURUZKO AKORDIOAK EZTABAIDAGAI. Mintegia *Partnership For Change* izeneko europar proiektuaren barruan garatu da. Mintegiaren xedea da Europaren eragin politikoari, prestakuntza-mailari eta sentsibilizazio-mailari buruzko hausnarketa egitea. Gaur

egun, Europako Batasunaren eta ACP herrialdeen (Afrika; Karibe, Pazifikoa) arteko merkataritza-lankidetzarako tresna nagusia Elkarte Ekonomikoei buruzko Akordioek osatzen dute.

IKASTAROA: GARAPENA, LAN-ESKUBIDEAK, ETA GIZARTE-KLAUSULA. OMAL-Paz con Dignidad erakundeak, Lan Harremanetarako Unibertsitate Eskolak eta Hegoak antolaturiko ikastaroa, EHuko Garapenerako Lankidetzaren bulegoaren laguntzarekin. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea. Bilbao. 2009ko martxoa.

IKASTAROA: GAIKUNTZAREN KUDEAKETA. ART ize-neko programaren baitan laguntza tekniko eskaini dugu Ekuadorren. Bi ikastaro eman ditugu, gobernu azpinazioaletako talde teknikoei zuzenduak. Horrez gain, laguntza eman diogu Goi Ikasketen Nazionalen Institutuari, Lurralde mailako Garapen Ekonomikoari buruzko Diploma ebaluatzeko eta birdiseinatzeko.

ENPRESA MULTINAZIONALEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK: HITZETATIK EKINTZETARA. OMAL eta Paz con Dignidad erakundeek antolatua Heegoa Institutuaren lankidetzarekin. EHuko esperientzia-ikasgelak, Bilbao. 2009ko azaro- abendua.

■ Hegoa Institutuko irakasleek beste unibertsitateetan emandako ikastaroak eta bestelako prestakuntza-ikastaroetan izandako parte-hartzea

Halaber, Hegoa Instituta osatzen dugunok, jarraian adierazten diren doktorego-programetan, masterretan, diplometan, espezializazioetan, mintegietan eta prestakuntza-ikastaroetan aritu gara irakasle.

Master Ofiziala: Berrikuntzaren eta ezagutzaren kudeaketa. Soziologia 2 Saila (UPV/EHU). Ikasgaia: Nazioarteko Ekonomia Eszenatokiak.

Master Ofiziala: Ikasketen feministak eta genero-ikasketak. UPV/EHU. Ikasgaiak: Globalizazioaren erronkak; Ekonomia feminista; Biztanleria eta birsor-

kuntza soziala; aldaketa soziala; Politika sozialak eta ekonomikoak eta berdintasuna. Leioa.

Unibertsitate-Masterra: Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Ekimenen Zentroa. (Grana-dako Unibertsitatea). Ikasgaiak: Garapenari buruzko kontzeptuak eta adierazleak.

Unibertsitate-Masterra: Garapenerako Mikrokredituak. Ekonomi Egitura eta Garapena Saila (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa). Ikasgaiak: Garapenaren finantziarioa: marko orokorra. Garapenerako finantziarioa: premiak eta finantziario-iturriak.

On Line Masterra: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna. UPV-EHU. Ikasgaiak: Ekonomia feminista; Familia-politikak berdintasunerako tresna gisa; Aurrekontuak generoaren ikuspegitik. Donostia.

Masterra: Enpresen aholkularitza. juridikoa. Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea. Bilbao. Ikasgaiak: Deslokalizazioak. Data: 2004-2010.

Masterra: Garapenerako lankidetzaren ikasgaiak: Garapenerako Hezkuntza Modulua (8 ordu). Jaume I Unibertsitatea, Castelló. 2009ko abendua.

Masterra: Garapena eta nazioarteko lankidetzaren ikasgaiak. Lleidako Unibertsitatea.

Master Network on Humanitarian Assistance (NOHA). Ikasgaiak: Baliabide elektronikoetan trebatzeko ikastaroa ikasketarako eta ikerkuntzarako. Deustuko Unibertsitatea. 2009ko iraila.

Masterra: Ikasketa Feministak. Ikasgaiak: Baliabide elektronikoetan trebatzeko ikastaroa ikasketarako eta ikerkuntzarako. Euskal Herriko Unibertsitatea. 2009ko urtarrila.

Aditu-Ikastaroa: Garapenerako nazioarteko lankidetzari buruzko proiektuen kudeaketa. Garapenari buruzko ikuspegiak eta nazioarteko lankidetzarako ikuspegiak: modernizaziotik giza garapenera. Antioquiako Unibertsitatea. Medellin. 2009ko abuztua.

Graduondo Ikastaroa: Gizarte esku-hartzeari buruzko proiektuak. Nafarroako Unibertsitateko Gizarte Laneko Eskola. 2009ko maiatza.

Zuzenbideko Graduondo-Ikastaroa. Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea. Gaia: Enpresa transnazionalen erantzukizuna: Herrien Epaimahai Iraunkorra. 2009ko urtarrila.

Ikastaroa: Garapenerako Lankidetzaren Magisteritza Eskola. Gaia: Nazioarteko elkartasuna eta garapenerako lankidetzaren balioak, lorpenak, arazoak eta erronkak. 2009ko urria.

Leonekinen prestakuntza-ikastaroa. Globalizazioa eta garapena. Bilbao. 2009ko urtarrila.

Ikastaroa: Iparralde-Hegoalde. Elizbarrutiko Misioak, Caritas eta Teologiako eta Pastoraltzako Elizbarrutiko Institutua. Bilbao. 2009ko urria.

Globalizazioa eta krisia. Hegoarekiko eraginak. Donostia Entremundos Programa. Donostiako Udala. 2009ko otsaila.

Globalizazioa eta garapena. Mundua eta eragindako ezberdintasunak. Prestakuntza-ikastaroa: "Lankidetzarako eta gizarte esku-hartzerako sarrera". ELKARHEZITZEN, Debagoienako toki-mailako 5 GGKEK sustaturiko ekimena garapenerako hezkuntza bultzatzeko. Eskoriatza. 2009ko urria.

Globalizazioa eta krisia. Otxarkoagako gizarte-etxea. Bilbao (2009ko martxoa). Indautxuko Josulagunen Ikastetxeko irakasleak. Bilbao (2009ko apirila). Langile Pastoralta. Barakaldo. 2009ko apirila.

Globalizazio ekonomikoa. Ikastaroa: Lankidetzarako eta Giza garapenerako teknologietarako sarrera. Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF). EHUko ETSI. Bilbao, 2009ko azaroa.

Krisi globala da arazoa. Izan al daiteke iaraunkortasun globala konponbidearen zati bat? EHUren Udako Ikastaroak. Donostia. 2009ko uztaila.

Garapenerako unibertsitate lankidetzaren ikasgaiak. Burgosko Unibertsitateko Lankidetzarako eta Elkartasun Ekin-tzarako Zentroak antolatutako prestakuntza-ikastaroa. Ikasgaiak: Garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren kontzeptu-markoa; Garapenerako hezkuntza unibertsitatean. Lankidetzarako eta Elkartasun

Ekintzarako Zentroa. Burgosko Unibertsitatea. Burgos, 2009ko urria.

Garapenerako Hezkuntza. Gasteizko Magisteritza Eskola. 2009ko maiatza.

Garapena eta hiritartasun globala bultzatzeko heziketa. Gasteizko Magisteritza Eskola. 2009ko azaroa.

Hiritartasuna bultzatzeko heziketa. Magisteritza Eskola. Gasteiz. 2009ko azaroa.

Prestakuntza Ikastaroa: Garapenerako hezkuntza bultzatzeko I. Vicente Ferrer sarian saritutakoi Ikastetxeetako 30 irakasleri eskainitako prestakuntza ikastaroa. AECID. Antigua (Guatemala). 2009ko abuztuairaila.

Garapenerako lankidetzarako sarrera. *Jóvenes Cooperantes Vascos izeneko programa*. Bilbao, 2009ko maiatza.


Giza garapena. Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Donostia. 2009ko azaroa.

Garapenaren ikuspegiak: modernizaziotik giza garapenera. Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Bilbao, 2009ko otsaila.

Garapena eta garapenerako lankidetzak: historia, bilakaera eta etorkizuna. Mondragon Unibertsitatea. Arrasate, 2009ko martxoa.

Egungo munduaren alderdi historikoak, politikoak, ekonomikoak eta sozialak. SETEM. Bilbao, 2009ko azaroa. Gasteiz, 2009ko abendua.

Berdintasun ezaren, kulturaren, garapenaren eta generoaren egoera giza eskubideen ikuspegitik. Generoari eta Garapenari buruzko ikastaroa. Bilboko Udala. 2009ko maiatza. ■





Ikerketa jarduerak

Urte honetan zehar, ikerketarako ekimen berriak sortu dira, eta, halaber, sendotu egin dira jada abian zirenak. Gaur egun, lau dira ikerketa-ildo ezberdinetan lanean ari diren lan-taldeak. Gehienbat EHUko irakaslez osaturik daude, hain zuzen ere, Hegoa Institutuari atxikitako irakaslez, eta neurri txikiago batean, kontrataturiko langileez.

■ Ikerketa taldeak

Giza Segurtasuna eta Tokiko Giza Garapena.

EHUko ikerketa-talde honek hirurteko-planean aurreikusitako ekintzekin jarraitu du aurrera. Ekintza horiek ikerketaren objektu diren lau ildo nagusien itzalpean garatu dira, eta horien xedea da giza segutasunean nahiz tokiko giza garapenean sakontzea ikuspegi praktikotik zein teorikotik. Aurten, landa-lana amaitzen joan gara eta ikerketok amaitu ahala lehentasuna eman diogu lortutako emaitzen zabalkundea egiteari, bai nazio-mailako zein nazioarteko kongresuetara ponentziak eta komunikazioak aurkeztuz bai gaian adituak diren aldizkarietan artikuluak argitaratuz. Ikerlari nagusia: Karlos Pérez de Armiño. Taldekideak: Alfonso Dubois, Luis Guridi, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Eduardo Bidaurratzaga, María López eta Irantzu Mendia. 2009ko martxoan Iker Zirion batu zitzaizen ikerlari kontratatu legez.

Tokiko Giza Garapena eta Generoa. 2008. urtearen amaiera aldera eraturitako talde hau euskal lankidetzak izandako ibilbideari buruzko ikerketa bat garatzen ari da, hain zuzen ere, azken hamar urteetan izandako ibilbideari eta tokiko giza garapenarekiko zein Genero-ikuspegiarekiko harturiko jarrerari buruzkoa. Ikerketa burutzeko honako lau herrialde hauek hartu dira eredu gisa: Peru, Guatemala, Ekuador eta Sahara. 2009an, ikerketaren marko teoriko-metodologikoan landu ez ezik, 1998-2008 hamarkadan euskal lankidetzak pilatutako datu-kuantitatibo guztiak sistematizatu egin ziren eta landa-ikerketa egiteari ekin zitzaion. Ikerlari nagusia: Yolanda Jubeto. Taldekideak: Mertxe Larrañaga, Jokín Alberdi, María López, Unai Villalba, Luis Guridi, Iván Molina eta Gloria Guzmán.

Garapenerako lankidetzaren programen nahiz lankidetzaren politiken analisia eta ebaluazioa.

Taldeak bere lan-egitarauarekin jarraitu du, eta 2009an bi ikerketa-proiektu burutu dira: a) Lankidetzarako politika publiko deszentralizatuak ebaluatzeko Metodologiaren eraketa EAEren kasua abiaburu hartuta (1988-2008). Hegoa Institutua. UPV/EHU. Erakunde finantzatzailea: AECID (Deialdi Irekia eta Iraunkorra 2009) eta b) Espainiako autonomia erkidegoen lankidetzaren politiken ebaluazioa eta azterketa alderatua: egokitasun- eta koherentzia-irizpideen aplikazioa. Ekonomia Aplikatuko Saila eta Hegoa Institutua. UPV/EHU. Erakunde finantzatzailea: Eusko Jaurlaritzaren (Deialdia: Unibertsitatea-Enpresa UE09+, 2009). Ikerlari nagusia: Koldo Unceta. Taldekideak: Michel Salbala, Idoye Zabala, Jorge Gutierrez, Mari Jose Martinez Herrero, Eduardo Malagón, Irati Labaien.

Enpresa transnazionalak eta sindikalismoa

Lan-ildo horretan ari den taldeak proiektu hau aurkeztu zion EHUari: marko juridikoa eta euskal sindikalismoaren ekintza transnazionala globalizazioan. 2009an eman zitzaion oniritzia aurkeztutako proiektuari. Ikerketa-proiektuaren xedea da euskal sindikatuei zuzendutako nazioarteko araugintza-proposamenak egitea eta nazioarteko gizartean eta sindikatuetan esku hartzeko ekintzak bultzatzea, betiere, Latinoamerikarekin loturikoak, hain zuzen ere, Nikaraguarekin, Boliviarekin eta Kolonbiarekin loturikoak. Nazioarteko elkartasunaren eta garapenerako lankidetzaren ikuspegiatik begiratuta hiru errealitate ezberdin dira, guztiak ere gure lurraldearekin lokarri estuak dituztenak (gizarte-ikuspegiatik, sindikatuen ikuspegiatik, erakunde-mailan). Ikerlari nagusia: Mikel de la Fuente. Taldekideak: Juan Hernández, Efrén Areskurrinaga, Mari Luz de la Cal eta Koldo Irurzun.

■ Ikerketa Proiektuak

Proiektuaren izenburua: Euskal lankidetzaren marko instituzionala: aukera bat generoen arteko ekitatearen aldeko lana eta tokian tokiko parte-hartzea bultzatzeko. Erakunde finantzatzailea: FO-CAD 2008. Iraupena: 2008-2010. Ikerlari nagusia: Yolanda Jubeto.

Proiektuaren izenburua: Guda-gatazkak eta gizarte- zein ingurumen-gatazkak. Dimentsio psiko-soziala, dimentsio komunitarioa eta genero-dimentsioa: Giza eskubideak, nazioarteko laguntza eta bakea eraikitzea. Proiektu hau gatazkei eta bakeari buruzko ikerketa-ildoaren baitan kokatzen da. Ikerketa-ildo horretan lau ikerketa zehatz hauek burutu dira: a) *Gudaosteko birgaikuntza eta bakearen eraikuntza generoaren ikuspegitik. Bi adibide: El Salvador eta Bosnia Herzegovina* b) *Garapenerako lankidetzaren, giza ekintzaren eta bakearen eraikuntzaren arteko harremana.* c) *Latinoamerikako gatazkan giza eskubideen urraketa jasan dutenekin lan egitearen dimentsio psikosoziala.* d) *Konponketa gizarte eta ingurumenaren gatazka egoeretan. Texacoren petrolio jarduerak Ekuadorreko Amazonian duen eragina.* Ikerketa-taldea: Irantzu Mendia Azkue, Karlos Pérez de Armiño, Carlos Martín Beristain, Iker Zirion.

Proiektuaren izenburua: Merkatu-ikerketa azukrearen birmoldaketatik eratorritako ekoizkinetarako, Kubako ekialdeko lurraldeetan. Ikerketa honen helburu nagusia da Kuba ekialdeko lurraldeetako sektore turistikoaren beharrianak ezagutzea inportatutako produktuei dagokienez. Bilatzen dena da produktu horietako batzuk lurralde horretako azukregintza-sektorearen birmoldaketaren ondorioz sorturiko enpresa-ekimenetatik eratorritako produktuekin ordezkatzeko. Bide batez, produktu horien bideragarritasuna eta bertako biztanleen elikagai buruaskitasuna bermatu nahi da. Koordinazio orokorra: Luis Guridi (UPV/EHU)/Alexis Cordovés (UHo). Proiektuaren arduraduna: Gelmar García doktorea (CEGEM/UHo). Eusko Jaurlaritza/ MINVEC-MINAZ hitzarmena.

Proiektuaren izenburua: Elikagaiak ekoizteko gaitasunei buruzko ikerketa Kuba ekialdeko lurraldean, elikagai subiranotasuna/buruaskitasuna

bermatzeko: CAI Maceo. Birmoldaketa pairatu duten zenbait CALren Oinarriko elikagaiak ekoizteko gaitasunak ezagutzea (Maceo), eta bertako herritarren kontsumo-beharrizanak antzematea ikerketaren objektu diren herritarren elikagai-buruaskitasuna bermatzeko, arreta berezia jarriz ingurumen-kontuetan eta genero-kontuetan. Koordinazio orokorra: Luis Guridi (UPV/EHU)/Alexis Cordovés (UHo). Proiektuaren arduraduna: C. Julio Nolberto Pérez doktorea (CEAAR/UHo). Eusko Jaurlaritza/MINVEC-MINAZ hitzarmena.

Proiektuaren izenburua: Azukregintzaren birmoldaketako esperientzien sistematizazioa Kubako ekialdeko lurraldeetan. Ikerketa honen helburu nagusia da Kuba ekialdeko lurraldeetako azukregintza-sektorearen birmoldaketa burutu duten ekimenak batzea eta aztertzea, hain zuzen ere, prozesu osoari buruzko informazioa jaso eta sistematizatu ahal izateko eta dagozkion ondorioak atera ahal izateko, gerora burutuko diren beste birmoldaketa-ekimenetan eredu gisa erabiltzeko. Koordinazio orokorra: Luis Guridi (UPV/EHU)/Alexis Cordovés (UHo). Proiektuaren arduraduna: Oscar Barzaga doktorea. UHo. Eusko Jaurlaritza/MINVEC-MINAZ hitzarmena.

Proiektuaren izenburua: Euskal sindikalismoaren marko juridikoa eta ekintza transnazionala globalizazioan. Erakunde finantzatzailea: UPV/EHU (19.800 euro) Iraupena: 2010-2012. Ikerlari nagusia: Mikel de la Fuente Lavín.

Proiektuaren izenburua: Lankidetzarako politika publiko deszentralizatuak ebaluatzeko metodologia: Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua (1988-2008). Hegoa Institutua. UPV/EHU. Erakunde finantzatzailea: AECID (2009). Ikerketa-taldea: Koldo Unceta, Michel Sabalza, Idoye Zabala, Jorge Gutiérrez, Mari Jose Martínez Herrero, Eduardo Malagón, Irati Labaien.

Proiektuaren izenburua: Espainiako Autonomia Erkidegoetako lankidetzaren politiken diseinuaren ebaluazioa eta azterketa konparatua: egokitasun eta koherentzia irizpideen aplikazioa. Ekonomia Aplikatua I Saila eta Hegoa Institutua. UPV/EHU. Erakunde finantzatzailea: Eusko Jaurlaritza (2009). Ikerketa-taldea: Koldo Unceta, Michel

Sabalza, Idoe Zabala, Jorge Gutiérrez, Mari Jose Martínez Herrero, Eduardo Malagón, Irati Labaien.

Proiektuaren izenburua: proposamena, berdintasun-adierazle sistema ez androzentrikoa hautatzea eta eratzea Bilbao Udalerrirako. Ekonomia Aplikatua I Saila, Soziologia 2 Saila, UPV/EHU. Erakunde finantzatzailea: Bilboko Udala (2009). Ikerketa-taldea: Idoe Zabala, Marta Luxan (Koord.), Mila Amurrio, Mari Luz de la Cal, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Ane Miren Larrinaga, Mari Jose Martínez, Elisa Usategui.

Proiektuaren izenburua: Mundubildu II. Fasea. Azterketa alderatua 8 autonomia erkidegoren artean (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Katalunia, Galizia, Madril, Valentzia eta Euskal Autonomia Erkidegoa) honako gai hauei buruz: Hiritartasunerako heziketaren ezarpena, Garapenerako Hezkuntzaren dekretuetan iradokitako ikuspegiaren arteko osagarritasuna, irakasleak prestatzeko proposamenak eta ikastetxeetan aurrera eramandako esperientziak.

■ Ikerketa Mintegiak

Ongizate-sistemak tokiko Giza Garapen prozesuetan. Batheko Unibertsitateko *Geof Wood* irakasleak ongizate sistemen ereduaren aurkezpena egin zuen. Eredu horretan bezerotza-sistemak bere horretan irauteko edo behin betiko ezabatzeke ezinbesteko jarrera duten eragileak islatu zituen. Bai eragile horiek bai horrelako jokabideak errepikatzea eta mantentzea ahalbidetzen duten aldagaiak oztopo larria dira giza segurtasun autonomoa bermatzeko eta tokiko giza garapenerako prozesuak aktibatzeke. Ekitaldian honako kontzeptu hauek ere jorratu ziren: "etiketatuen" boterea, erakundearen domeinuen arteko iragazkortasun positiboa/negatiboa, gizarte-eragileen eta bestelako ereduaren aurkezpenaren arteko harreman-dinamikak.

■ Doktorego-tesiak

Aurkeztutako doktorego-tesiak

Eduardo MALAGÓN ZALDUA: *Multifuncionalidad e instrumentos de política agraria: el caso de la política agroambiental en la CAPV*. Zuzendaria: Koldo Unceta. Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia, 2009. Bikain Cum Laude.

Matrikulaturiko doktorego-tesiak

Desarrollo sostenible y participación social en Xochimilco, ciudad de México. Gabriel Chanfreau Ochoa. Zuzendaria: Koldo Unceta.

Sistemas electorales y desarrollo humano, análisis de Europa y América Latina. P. Paulina Constanza, Celis Maggi. Zuzendaria: Imanol Zubero.

Evaluación de políticas públicas de cooperación descentralizada al desarrollo. Irati Labaien Egiguren. Zuzendaria: Koldo Unceta.

El empoderamiento, clave para el desarrollo humano. Enfoque teórico y modelo de evaluación. Pedrosa Gaoña, Fanny Esther. Zuzendaria: M^a Ángeles Díez.

Políticas públicas y TICS para el desarrollo humano sostenible en México. Miguel Ángel Sarmiento Hernández. Zuzendaria: Eduardo Bidaurratzaga.

Ikerketa-sareak


Urte honetan zehar, Hegoak nazio-mailako zein nazioarte-mailako hainbat ikerketa-saretan parte hartzen jarraitu du. Coimbrako Unibertsitateko *Bake Ikerketen Gunea* (NEP) taldearekin eta Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Ikasketa Afrikarrei buruzko taldearekin batera (GEA), Hegoak giza segurtasuna, bakea eta gatazkak aztertzen dituen ikerketa-sare batean parte hartzen du. Sare horrek Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du. Hasiera batean 2006az geroztik, eta, ondoren, 2008tik aurrera modu etengabea.

Aldi berean, Hegoak Bakerako Espainiar Ikerketa Elkartean (AIPAZ) ere parte hartzen du. Elkarre hori

1997an eratu zen bakea eta gatazkak ikuspegi anitzetatik ikertzeko. AIPAZen batzarra 2009ko apirilaren 17an eta 18an egin zen Granadako Unibertsitateko Bakearen eta Gatazken Institutuan, eta batzar horretan bakerako ikerketarekin eta hezkuntzarekin zerikusia duten Estatu osoko elkarteek, elkarte horietako kideek, zentroek eta Institutuek hartu zuten parte.

Nazioarteko batzordeetan eta ordezkaritzetan izandako parte-hartzea

Europako Biltzar Ekonomiko eta Soziala. Enplegu, Gizarte Ekintza eta Hiritartasunaren Atal Espezializatua. SOC350 Irizpena. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lanerako Planaren bitarteko txostena. M^a José Martínez. Eguna: 2009/06/01-2010/03/17. ■



■ Liburuak, koadernoak, eta bestelako materialak

CELORIO, G.; ARGUIBAY, M. (KOORD.) *Diccionario de Campaña*. Partnership For Change izeneko europar proiektuaren ekintza-markoaren baitan argitaratua, Europako Batasunaren eta ACP herrialdeen Ekonomia Elkarketa Akordioen (EPA) aurkakoa. Hainbat adituk hartu du parte, besteak beste, Hegoa Institutuko PDI-ko kideak, Estatuko beste unibertsitateetako eta erakundeetako kideak, eta Europako Batasuneko kideak. Lau hizkuntzatan argitaratu da (italiera, ingelesa, nederlandera eta gaztelania). Bilbao. 2009ko martxo.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J., RAMIRO, P. *Los movimientos sociales y sindicales ante la Responsabilidad Social Corporativa: propuestas de intervención frente al poder corporativo*. Non: *El negocio de la Responsabilidad. Crítica de la Responsabilidad Social Corporativa de las empresas transnacionales*. Icaria. Bartzelona. 2009. 223-242 orrialdeak.

GUTIERREZ, J. *Microfinanzas y desarrollo: situación actual, debates y perspectivas*. Lan-Koadernoak/Cuaderno de Trabajo, 49. zk., Hegoa, 2009ko apirila.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Las Empresas Transnacionales frente a los Derechos Humanos. Historia de una asimetría normativa*. Liburu. Argitaletxea: Hegoa-UPV/EHU eta Multinazionalen Behatokia Latino-amerikan. Bilbao. 2009. 17-61. orrialdeak.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Desarrollo y soberanía: modificaciones normativas*. Non: *Deuda Ecológica. Energía, transnacionales y cambio climático* (Liburukapitulua). Icaria. Bartzelona. 2009. 209-249. orrialdeak.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *¿Lex mercatoria o derechos humanos? Los sistemas de control de las empresas transnacionales*. Non: *El negocio de la Responsabilidad. Crítica de la Responsabilidad Social Corporativa de las empresas transnacionales*. Icaria. Bartzelona. Liburukapitulua. 2009. 8-43. orrialdeak.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J.; RAMIRO, P. *El negocio de la Responsabilidad. Crítica de la Responsabilidad Social Corporativa de las empresas transnacionales*

liburuaren aurkezpena. Icaria. Bartzelona. 2009. 3-8. orrialdeak.

MARTÍN BERISTAÍN, C.; PÁEZ ROVIRA, D.; FERNÁNDEZ, I. *Las palabras de la selva. Estudio psicosocial del impacto de las explotaciones petroleras de Texaco en las comunidades amazónicas de Ecuador*. Hegoa. Bilbao, 2009.

MENDIA AZKUE, I., *Aportes del activismo de las mujeres por la paz*. Lan-Koadernoak/Cuaderno de Trabajo, 48.zk. Hegoa, Bilbao. 2009.

MENDIA AZKUE, I., *Género y rehabilitación posbélica. El caso de Bosnia-Herzegovina*. Lan-Koadernoak, 50. zk., Hegoa, Bilbao. 2009ko maiatza.

■ Bestelako materialak

Elkarrizketak, 1. zk.: emakumeen eskubide ekonomikoak (uztaila). Hiru argitalpeneko bilduma baten zati da, ACSUR-Las Segovias argitalpenarekin batera. Lehenengo zenbaki honetan emakumeak baztertzen dituen botere-egituraketa ezberdinaren gaia jorratzen da, bai Iparraldean zein Hegoaldean. Aurreneko koaderno honetan emakumeen eskubide ekonomikoei buruz ari dira, lan-merkatura sartzeko aukera-berdintasuna eta hortik eratorritako lan-eskubideak ez ezik, ikuspegi globalago batetik, eraldatzaileagoa, aldarrikapen feministaren muinean dagoen ikuspegia alegia. 2009ko uztaila.

Elkarrizketak, 2. zk.: emakumeak gatazka-egoeretan. "Elkarrizketak" koadernoaren bigarren zenbakian, aztertzen nahi izan da emakumeek zer-nolako egoerak pairatzen dituzten gatazka-egoeretan –gatazka-egoeratzat guda baino dimentsio handiagoko zerbait hartuz-, alegia, gatazka armatuko testuinguruetan emakumeen aurka ematen den bortizkeria salatu eta, aldi berean, emakume-elkarteak eta elkarte feministak bake-eragile legez aintzatetsi. 2009ko urria.

Hegoa, Informazio-buletina, 17. zk. 2009ko apirila: *Multinacionales de la energía en América Latina*, Kristina Saézen eta Erika Gonzálezen lankidetzarekin,

OMAL -Paz con Dignidad- Behatokiko ikerlariak (Multinazionalen Behatokia Latinamerikan).

Hegoa, Informazio-buletina, 18. zk. 2009ko uztaila: "Hambre, inseguridad y crisis alimentaria", Efrén Areskurrinagaren lankidetzarekin, Hegoako kidea, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari bruzko Ikasketa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU.

Hegoa, Informazio-buletina, 19. zk. 2009ko urria: "El movimiento de mujeres en América Latina", Gloria Guzmánen eta Irantzu Mendiaren lankidetzarekin, Hegoako ikerlariak, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari bruzko Ikasketa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU.

Hegoa, Informazio-buletina, 20. zk. 2009ko abendua: "Copenhague-2009: ¿Fracaso de quién?, Iñaki Bárcenaren eta Ignacio Miñambresen lankidetzarekin, UPV/EHUko ikerlariak eta Ekologistak Martxan taldeko kideak.

■ Artikuluak eta ikerlanak

DUBOIS MIGOYA, A. *Educar en la ciudadanía global. Ideas Clave*. Non: La ciudad educadora. Gasteizko Udalerriko Gizarte-kontseiluaren forora aurkeztutako ponentzia. Gasteiz. 2009. 125-141 orrialdeak.

CELORIO, G.; DE JUAN, I. *Hacia una conciencia crítica*. Non: Cuadernos de Pedagogía, 390. zk., 2009ko maiatza. 58-63 orrialdeak.

